ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko azaroaren 11, asteazkena • 128 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LEGUTIOKO UDALA

**Bake epaile titularraren eta ordezkoaren karguak betetzeko deialdia**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzaren osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari proposatuko diola bake epaile titularraren eta ordezko bake epailearen karguak betetzeko pertsonak izendatzea, 4 urterako.

Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

Adin nagusikoa izatea.

Nazionalitate espainiarra izatea.

Legutioko udalerrian erroldatuta egotea.

Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389. artikuluak eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Izendapen horretan interesa dutenek honako eskaera hau aurkeztu beharko dute Legutioko Udaleko Erregistro Orokorrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hogei egun naturaleko epean.

ESKAERA EREDUA

.................................................. jaunak/andreak (NAN zk.: .................; herria: …………; kalea eta zenbakia: ….......................; posta kodea: ..........................… ; telefonoa: ….....................…; hebide elektronikoa: .................)

ADIERAZTEN DU

Badaki deialdia egin dela bake epaile titularraren eta ordezkoaren kargua betetzeko, eta hautagai izateko onartu dezaten nahi duenez, hau

ADIERAZTEN DU

Ez dago zigortuta dolozko delituagatik edo, hala badagokio, errehabilitazio onura jaso du.

Ez dago prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituagatik edo, hala badagokio, auzipetua izan den kausan absoluzioa edo largespen autoa eman da.

Eskubide zibilak erabat baliatzen dituela.

Ez dago fisikoki eta psikikoki ezgaituta epaile eginkizunetarako.

Ez du Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389. artikulutik 397.era bitartekoetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasunik.

Horregatik,


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

HAU ESKATZEN DU

Onartua izatea proba horietarako.

..............................................., …….. (e) ko ……………….. (a) ren ……………. (a).

Legutio, 2020ko urriaren 27a

*Alkatea*
*JON ZUAZO ZUBERO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.11.11 06:10:24 Z